BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3758

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 9koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko apirilaren 29ko Aginduz egindako deialdia, arte plastikoetako eta diseinuko lanbide-irakaskuntzako ikastetxe baimenduei diru-laguntzak emateari buruzkoa, ebazten duena.

Aipatutako deialdirako zentroek aurkeztu dituzten aztertu ondoren, eta bertako hamargarren artikuluak sailburuordetza honi ebazpena dagokiola ezartzen duela kontutan hartuz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Esandako deialdia erabakitzea, zentro bakoitzari dagokion diru-kopurua esleituz, ebazpen honetako I. eranskinean jakinarazten den bezala.

2. artikulua.– Baremo guztietan ezarritakoa esleituz, irakastordu finantzagarri bakoitzari dagokion diru-kopurua, hauxe izango da:

Euroak orduko: 51,2127.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Prozedurari dagokionez ebazpen horretan arautu gabeko guztietarako, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea ezarriko da.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen hau hezkuntza-komunitateko sektore guztiei jakinarazi beharko zaie zentroko informazio-guneetan erakutsiz.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 9a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

I. ERANSKINA

2013-2014 URTEA

ZENTROAREN IZENA	ZENTROAREN TITULARRA	O.F.	GUZTIRA
Argi Arte	Argi-Arte, S.L.L.	648,35	33.203,83
Inutec	Inutec Diseño, S.L.	251,47	12.878,57
Kunsthal	Arrecubieta y Urgull AP &D, S.L.	705,19	36.114,60
Guztira		1.605,01	82.197,00